



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

2019/05/17

## **Maiatzaren 26an, Gernikako Arbolaren oinordeko bat landatuko da Suediako Göteborg urian**

Gernikako Arbolearen landarea Jonsered lorategietako lurretan sartuko da, Göteborgen, maiatzaren 26an (domekea). Lorategiok ondare botaniko garrantzitsua daukie, 1800. urtetik aurrerakoa, eta gaur egun eredugarriak dira jakin dabelako modu abangoardista baten bateratzen, alde batetik, laborantza ekologikoa eta, bestetik, gizarte-erantzukizuna. Izan be, udalerrriak egitasmo bat daroa aurrera lorategi horreetan, egitasmo horretan sartzen diranek aukerea eduki daien, landarak eta arbolak zainduz, lan-merkatuan sartzeko.

Bizkaiko Batzar Nagusiek eskerrak emoteko oparituko deusie landarea Göteborgi; izan be, Suediako uri horrek egin eutsan harrerea Jose Antonio Agirre Lehendakariari eta erraztu eutsen bidea berari eta bere familiari 1941eko bagilean, naziakandik iges egiteko, Göteborgeko portutik joan ziralako Ameriketara. Gernikako Arbolearen oinordekoa landatzeko ekitaldian, Göteborgeko udal-agintariakaz batera, Bilboko Garaizarko Matsorriak abesbatzak hartuko dau parte, euskal folkloreko kantak abestuz.

Ekitaldia 15:00etan hasiko da Göteborgeko Unibersidadeko irakasle Ingmar Söhrman-ek emongo dauen berbaldiagaz, Picassoren “Guernica” artelan ezaguna eta Gernikako Arboleak bakearen sinbolo moduan daukan garrantzia gaitzat harturik. Ekitaldian, herritar guztiek hartu ahal izango dabe parte, eta 17:00etan emongo jako amaieraa, orduan haretx historikoaren oinordeko bat landatuko dalako Suediako lurretan, Herrgårdsparken-en (Jonsered lorategiak) hain zuzen be.

Euskal musikea be izango da ekitaldian Garaizarko Matsorriak abesbatzaren eskutik, Begoñako Errepublika Zaharreko talde hori kontzertu-birea egiten dabil Suedian, eta bira horren barruan Stockholmen eta Upsalan be kantaiko dau. Abestalde hori —daborduko, 32 urteko historia dauka— Miren Zubietak zuzentzen dau, eta erreperitorio zabala dauka: euskal folkloreko kantak, bilbainadak, erlijino-musikea eta nazinoarteko konposatzaileen piezak.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

17/05/2019

## **La ciudad sueca de Gotemburgo acogerá la plantación de un retoño del Árbol de Gernika el domingo 26 de mayo**

Un retoño del Árbol de Gernika se plantará el domingo 26 de mayo en la ciudad sueca de Gotemburgo. Será en Jonsered Gardens, jardines que cuentan con un patrimonio botánico que se remonta al año 1800 y que hoy día son un ejemplo de vanguardista combinación de cultivo ecológico y responsabilidad social. El municipio desarrolla en estos jardines un proyecto en el que sus participantes tienen la oportunidad de acercarse al mercado laboral a través del cuidado de plantas y árboles.

Las Juntas Generales de Bizkaia donarán este retoño a la ciudad como tributo y en agradecimiento por haber acogido al Lehendakari José Antonio Agirre y haber facilitado su salida y la de su familia rumbo a América desde el puerto de Gotemburgo en junio de 1941, huyendo de los nazis. En la ceremonia de plantación del esqueje del Árbol de Gernika participará, junto con las autoridades de la municipalidad sueca, el coro bilbaíno Garaizarko Matsorriak, que interpretará canciones del folclore vasco.

El acto comenzará a las 15 horas con una conferencia de Ingmar Söhrman, profesor de la Universidad de Gotemburgo, sobre el famoso cuadro “Guernica” que pintó Picasso y sobre la importancia del Árbol de Gernika como símbolo de paz. Abierta a la participación de la ciudadanía, la ceremonia terminará a las 17 horas tras la plantación de un retoño del histórico roble en tierra sueca, concretamente en Herrgårdsparken (Jonsered Gardens).

Garaizarko Matsorriak, la Coral de la Vieja República de Begoña, pondrá música vasca al acto, dentro de una gira de conciertos en Suecia, en la que actuarán también en Estocolmo y en Upsala. Dirigido por Miren Zubieta, este coro, que ya ha cumplido 32 años, cuenta con un amplio repertorio que incluye canciones del folclore vasco, bilbainadas, música religiosa y piezas de compositores internacionales.